

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

PASAIKO UDALA

*Iragarkia*

Pasaiako Udaleko Alkatetzaren ebazpena onartu da, 2020ko ekainaren 9koa, Pasaian tokiko merkataritza bultzatzeko eta sustertzeko kontsumo-bonuen oinarriak eta deialdia onartzeko. BDNS (Identif.): 509862.

DEIALDIA

1. *Xedea.*

Deialdi honen xedea da herritarrei kontsumo-ondasunak eta zerbitzuak erosteko emango zaizkien dirulaguntzak (Pasaiako erosketa-bonuak) arautzea, eta establezimenduak ekimen horretara batzeko baldintzak arautzea.

2. *Esleipen ekonomikoa.*

Ekimen honetan ezarritako helburuak lortzeko, 50.000 euro esleitu ditu udalak, 02.480.01.433.00 laguntza-kontusailetik.

3. *Diruz lagun daitekeen jarduera, aplikazio-eremua.*

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak hauek dira: Pasaiako udalerriko ekimen honetara batu diren txikizkako establezimenduetan ondasunak eta zerbitzuak erostea, oinarri hauetan arautzen diren bonuen bitartez.

2. Diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen dira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez itxita egon diren txikizkako establezimendu guztiak edo, irekita egon arren, fakturazioan murrizketa garrantzitsua izan dutenak, 8. oinarrian zehazten den moduan. Kanpaina honetatik kanpo geratzen dira ostalaritzako jarduerak, janari- eta edari-dendak, farmaziak, joko- eta apustu-aretoak eta estankoak.

3. Atxikitako establezimenduen artean banatuko diren bonuek 30 euroko balioa dute.

Pasaiako Udalak ekimen honetan erositako bonu bakoitzaren herena finantzatu du, hau da: 30 €-ko bonu bakoitzeko udalak 10 euro finantzatu ditu, eta bezeroak gainerako 20 euroak ordainduko ditu.

Bonuak ekimenera atxikitako establezimenduetan salduko dira, erosten diren establezimenduan erabili ahal izango dira, eta aldi bakarrean gastatuko dira.

Ekimena kudeatzeko, udalak entitate baten laguntza izango du, ekimena arintzeko eta errazteko, eta ahalik eta Pasaiako establezimendu gehienetara zabaltzeko.

4. *Onuradunak.*

Pasaiako dendetan Kontsumo Bonoak erosten dituzten pertsona fisikoak izango dira laguntza hauen onuradunak, betiere ezarritako baliabide eta bideetatik eskuratu badituzte, eta oinarri hauetan ezarritako berariazko baldintzak betetzen badituzte.

AYUNTAMIENTO DE PASAIA

*Anuncio*

Se ha aprobado Resolución con fecha 9 de junio de 2020, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Pasaia, por la que se aprueban las bases y la convocatoria para la concesión de Bonos de consumo para la promoción y reactivación del comercio local en Pasaia. BDNS (Identif.): 509862.

CONVOCATORIA

1. *Objeto.*

El objeto de esta convocatoria es regular las condiciones de las subvenciones destinadas a la adquisición de bienes de consumo y servicios a la ciudadanía mediante la concesión de bonos consumo de Pasaia y regular las condiciones de acceso de los establecimientos adheridos a la misma iniciativa.

2. *Consignación económica.*

La cuantía presupuestaria destinada para conseguir los objetivos marcados en esta iniciativa tiene una consignación de 50.000 € que serán financiados de la partida 02.480.01.433.00.

3. *Actividad subvencionable, ámbito de aplicación.*

1. Se consideran gastos subvencionables, la compra de bienes y servicios en establecimientos minoristas adheridos a esta iniciativa del municipio de Pasaia a través de los bonos regulados en estas bases.

2. El ámbito de la actividad subvencionable comprende todo el comercio minorista que haya estado cerrado por el Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo, o que a pesar de estar abiertos hayan visto seriamente mermada su actividad y ventas, tal como se define en la base 8. Se excluyen las actividades de hostelería, los comercios de alimentación y bebidas, farmacias, establecimientos de juego y apuestas y estancos.

3. Los bonos distribuidos entre los establecimientos adheridos tendrán un valor de 30 euros.

El Ayuntamiento de Pasaia prestará en esta iniciativa la financiación de un tercio de cada bono adquirido, así de cada bono de 30 € el ayuntamiento financiara 10 euros y la o el cliente abonará los restantes 20 euros.

Los bonos se comercializarán en los establecimientos adheridos y se utilizarán únicamente en el mismo establecimiento donde se han adquirido y de una sola vez.

Para la gestión de la iniciativa el ayuntamiento contará con una entidad colaboradora a fin agilizar, simplificar y extender entre el máximo número posible de establecimientos de Pasaia esta iniciativa.

4. *Personas beneficiarias.*

Se consideran personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas que adquieran Bonos de Consumo en establecimientos de Pasaia por los medios y cauces establecidos y reúnan los requisitos específicos establecidos en estas bases.

#### 5. Laguntzen izaera.

Programa honen barruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.

#### 6. Erakunde laguntzailea.

Laurak Bat, Pasaiaiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresen elkarte, izendatu da erakunde laguntzaile gisa, bonuen Kudeaketa koordinatzeko, eta horien justifikazioa egiaztatze; sektorearen gehiengoa biltzen duelako.

Laurak Bat elkartearekin elkarlanean banatuko dira erosketa bonuen trukearen bidezko dirulaguntzen funtsak; halaber, elkarte horrekin elkarlanean egiaztatuko da dirulaguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla. Lankidetzat hori elkarlartearekin sinatzen den urteko hitzarmenean sartuko da; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra-ekin bat gauzatuko da; eta lege horretan eta dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzako garapen xedapenetan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.

Erakunde laguntzaileak ez du inolako diru-kopururik jasoko bonuen Kudeaketaren truke, elkartegintza eta udalerriko merkataritza-jarduera sustatzeko urteko hitzarmenean jada diruz lagunduta dagoela jotzen delako.

#### 7. Erakunde laguntzailearen betebeharrak.

1.— Laurak bat merkataritza elkarteak, dirulaguntza kudeatzeko erakunde laguntzaile gisa, honako jarduketak hauek egingo ditu:

Programaren zabalpena; bai orokorra, web orriaren eta sare sozialen bidez; eta bai banakakoa, txikizkako establezimendu guztiei banan-banan jakinaraziz.

Interesa duten establezimendu guztiei informazioa eman, eta eskaerak jaso, kanpainarako atxikipena formalizatzeko.

Bonuen Kudeaketa eta bonuak establezimenduetan banatzea, udalak establezimendu bakoitzari esleitutako kopuruaren arabera.

Diruz lagundutako salerosketa guztietan baldintzak betetzen direla egiaztatu, bonuen bidez, edo erosketa-faktura edo -tiketen bidez.

Behin egiaztatze-jarduketak egin ondoren, ezartzen den maiztasunarekin establezimenduei egin beharreko ordaintzen zerrendak egin, eta egiaztariekin batera entregatu beharko ditu Pasaiaiko Udaleko Ekonomia Sailean.

2.— Jarduketak horietan konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna beteko ditu, negozio eta pertsonen buruzko datuei dagokionez, eta esku artean duen informazioa dirulaguntza-funtsak banatzeko helburuetarako bakarrik erabiliko du.

3.— Guztiz debekatuta dago establezimenduen artean be-  
reizkeriarik egitea edo tratua ezberdina ematea, eta Laurak Bat-  
tek berdintasunezko tratua emango die establezimendu guztiei,  
elkarteko kide diren edo ez alde batera utzita.

#### 8. Atxikitako establezimenduen parte hartzeko baldintzak.

1.— Establezimenduen honako baldintza hauek bete beharko dituzte, Pasaiaiko kontsumo-bonuen ekimenean parte hartzeko:

Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz, ixtera behartuak izan diren establezimenduak izatea, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren arabera (martxoaren 10eko 463/2020 ED al-

#### 5. Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

#### 6. Entidad colaboradora.

Laurak Bat, la asociación de comerciantes, hosteleros y servicios de Pasaia, es la entidad designada como colaboradora para la coordinación de las actividades de gestión de los bonos y verificar su justificación, por agrupar a la mayor parte del sector.

La distribución de los fondos subvencionables mediante el canje de los bonos y la comprobación del cumplimiento de las condiciones y requisitos de la subvención se hará con la colaboración Laurak Bat. La colaboración se instrumentará mediante la inclusión de dichos cometidos en el convenio de colaboración anual que se firma con dicha asociación, que se registrará por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de la General de Subvenciones, aplicándose a la entidad el régimen jurídico previsto en dichas Leyes y en sus disposiciones de desarrollo para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.

La entidad colaboradora no percibirá ninguna cantidad por la gestión de dichos bonos, por entenderse que se trata de una actividad que se encuentra ya subvencionada en el Convenio Anual para el fomento del asociacionismo y la actividad comercial del municipio.

#### 7. Obligaciones de la entidad colaboradora.

1.— La asociación de comerciantes Laurak Bat, en su condición de entidad colaboradora en la gestión de la subvención, realizará las siguientes actuaciones:

La difusión del programa, tanto la general a través de su página web y de las redes sociales, como la individualizada a todos los comercios minoristas.

La información a los comercios interesados y la recepción de solicitudes a los mismos para la formalización de la adhesión a la campaña.

La gestión y la distribución de los bonos en los comercios según el número asignado a cada establecimiento realizada por el Ayuntamiento.

La verificación del cumplimiento de los requisitos de cada compraventa bonificada, documentada en un bono y en una factura o ticket de compra.

Una vez realizadas las actuaciones de comprobación deberá elaborar periódicamente relaciones de pagos a efectuar a los establecimientos y entregarlos junto con la documentación justificativa al Departamento de Economía del Ayuntamiento de Pasaia.

2.— En la ejecución de estas actuaciones deberá observar los deberes de confidencialidad y sigilo en lo que se refiere a los datos de negocio y de personas, utilizando la información que maneja a los exclusivos fines del reparto de fondos subvencionables.

3.— Está absolutamente prohibida cualquier discriminación o trato desigual a los comercios, y Laurak Bat deberá otorgar un trato igualitario a todos los comercios, con independencia de su pertenencia o no a su asociación.

#### 8. Condiciones de participación de los establecimientos adheridos.

1.— Los requisitos que deberán cumplir los establecimientos para participar en la iniciativa de los bonos consumo de Pasaia serán los siguientes:

Ser establecimientos que se han visto afectados por el cierre obligatorio, definido por el Real Decreto 465/220 de 17 de marzo por el que se modifica el artículo 10 del RD 463/2020,

datzen duena), edo ezinbestekotzat jo diren establezimenduak izanik, beren jarduera eta salmentak asko murriztu dituztenak; baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Establezimenduaren jarduera nagusia izango da kontsumitzaileari zuzenean produktuak, zerbitzuak eta kontsumo-ondasunak saltzea.

Bere jarduera kanpaina honetatik kanpo ez geratzea 3. oinarriaren arabera.

Jendaurreko salmentarako establezimendua Pasaian egoitea, eta Pasaia udalerrian JEZn altan egoitea.

Etea izatea, kasu, 10 langiletik beherako plantilla, eta urteko fakturazioa 1.000.000 eurotik beherakoa duena.

Nahitaezko itxierak eragindakotzat edo beren jardueran murrizketa garrantzitsua jasandakotzat hartuko dira honako hauek: Covid-19aren ondorioz aldi baterako enplegu erregulazioko espedientearen egiaztagiria aurkezten dutenak, edo autonomoentzako aldi baterako jarduera eten izanagatik ezohiko prestazioaren (CATA) titular direla egiaztatzen dutenak, Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz (martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan arautua). Lehen adierazitako dokumentazioa aurkeztu ezean, egiaztatuko da 2020ko apirilko fakturazioa gutxienez % 75 murriztu dela, 2019ko irailetik 2020ko otsailera bitarteko hileko batez bestekoarekin alderatuta.

2.— Establezimenduak kontsumo-bonuen bidezko dirulaguntza hauen onuradun subsidiariotzat hartzen direnez, egiaztatu beharko dute Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean dauzkatala, eta baita Pasaia Udalarekiko betebeharrak ere.

Gainera, erantzukizunpeko aitorpenaren bidez, egiaztatuko dute ez dutela inolako debekurik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun-izaera lortzeko.

#### 9. Establezimenduak ekimenera batzea.

Ekimen honetara batzeko, establezimenduek Pasaia Udalaren web orrian argitaratuko den eskaera-eredua bete beharko dute: [www.pasaia.eus](http://www.pasaia.eus).

Laurak Bat elkartearen bulegoan ere eskuratu daiteke eska-bidea, Euskadi Etorbidea, Trintxerpeko Azokoa, 2. solairuan, edo emailaz eskatu helbide honetara: [arantxa@laurakbat.com](mailto:arantxa@laurakbat.com).

Eskaerak lehentasunez Udalaren Erregistro Elektronikokoaren bidez egingo dira. Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuko bulegoetan (HAZ) eta Laurak Bat elkartearen bulegoetan ere aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Laurak Bat elkartearen ordutegia, asteartetik ostiralera honako hau da 9:30-13:30.

Laurak Bat elkarteak banakako atxikitze-eskaera guztiak Udalaren HAZ bulegoetan aurkeztuko ditu, epea bukatu eta hurrengo egun baliodun arte. Laurak Bat elkartearen bulegoetan eskaerak aurkezten dituzten establezimenduak, ekintza horrekin, automatikoki onartzen dute Laurak Batek bere eskabideak aurkeztuko dituela.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

##### a) Eskabidea.

Eskabide-ereduan datu hauek jasoko dira: atxikitako establezimenduaren identifikazio datuak, JEZaren epigrafe nagusia, banku-helbideratzearen datuak, eta ekimenean parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen erantzukizunpeko

de 14 de marzo o bien que aun siendo considerados esenciales han visto seriamente mermada su actividad y ventas, que reúnan las siguientes condiciones:

Que su actividad principal sea la venta directa al consumidor/a de productos, servicios y bienes de consumo.

Que su actividad no se encuentre entre las actividades excluidas en la base 3.

Que tengan su establecimiento de venta al público y estén dados de alta en el IAE en el municipio de Pasaia.

Que tengan la condición de Pyme, definida como una plantilla inferior a 10 trabajadores y trabajadoras y con una facturación inferior a 1.000.000 euros anuales.

Se entenderá que se han visto afectados por el cierre obligatorio o han visto seriamente mermada su actividad, los que presenten justificante de un expediente de regulación temporal de empleo (ERTE) a raíz de la Covid-19, o justificación que acredite ser titular de la prestación extraordinaria por cese temporal de actividad para autónomos (CATA), como consecuencia de la declaración del Estado de Alarma para la gestión de la crisis sanitaria provocada por Covid-19 regulada en el artículo 17 del Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo. En caso de no presentar la documentación anteriormente indicada, se comprobará que la facturación de abril de 2020 se ha reducido al menos en un 75 % en comparación con la media mensual de septiembre de 2019 a febrero de 2020.

2.— Al considerarse subsidiariamente que los establecimientos adheridos son también beneficiarios de esta convocatoria de subvención de bonos de consumo, tendrán que acreditar que se hallan al corriente de sus obligaciones con la Hacienda Foral, con la Tesorería General de la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Pasaia.

Además, a través de declaración responsable, acreditarán no estar incurso en el resto de prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

#### 9. Adhesión de establecimientos a la iniciativa.

Los establecimientos que quieran adherirse a esta iniciativa utilizarán el modelo de solicitud que se publicará en la página web del Ayuntamiento: [www.Pasaia.eus](http://www.Pasaia.eus).

También estará disponible en la oficina de la asociación Laurak Bat, Euskadi Etorbidea, Trintxerpeko Azokoa, 2 solairua. 20.110 Pasaia o solicitándolo por e-mail en la siguiente dirección: [arantxa@laurakbat.com](mailto:arantxa@laurakbat.com).

Las solicitudes se realizarán prioritariamente en el Registro Electrónico del ayuntamiento. También podrán presentarse en el Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC) del Ayuntamiento o en las oficinas de la asociación Laurak Bat de manera presencial.

El horario de la oficina de la asociación Laurak Bat para presentar las solicitudes es el siguiente: de martes a viernes de 9:30-13:30.

La asociación Laurak Bat presentará en las oficinas del SAC del ayuntamiento todas las solicitudes de adhesión individuales que haya recepcionado dentro del plazo, hasta el día siguiente hábil a la finalización del mismo. Los establecimientos que entreguen sus solicitudes en las oficinas de Laurak bat, aceptan automáticamente que Laurak bat presente su solicitud.

Documentación a presentar:

##### a) Solicitud.

El modelo de solicitud incluirá los datos identificativos, el epígrafe principal de IAE, datos de domiciliación bancaria del establecimiento adherido y una declaración responsable del cumplimiento de los requisitos para participar en esta iniciativa.

aitorpena. Halaber, Pasaia Udalari baimena emango zaio, ofizioz eta zuzenean egiazta ditzan sarbidea duen datuak, ekimean parte hartzeko baldintzak betetzen direla baieztatzeko.

- b) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN.
- c) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFKren kopia.

d) Jarduera ekonomikoa itxi behar izan duela, edo jarduera murriztu dela egiaztzatzeko, honako egiaztagiriren bat aurkeztu beharko du:

Covid-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu erregulazioko espedientearen egiaztagiria, edo autonomoentzako aldi baterako jarduera eten izanagatik ezohiko prestazioaren (CATA) titular direla egiaztatzen duen agiria; edo, 2019ko irailetik 2020ko otsailera bitarteko hileko batez bestekoarekin alderatuta, 2020ko apirilko fakturazioa gutxienez % 75 murriztu dela justifikatzea.

e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta bajeen ziurtagiria.

Eskaerak 10 egun balioduneko epean aurkez daitezke, ekimen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Pasaia web orriari argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaerak aurkeztu, eta establezimenduek baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren; onartutako establezimenduen zerrenda argitaratuko da udalaren web orrian, eta Laurak Bat erakunde laguntzailearen web orrian. Eskaerak epe barruan aurkeztu, baina adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten establezimenduek 5 egun baliodun izango dituzte hutsuneak konpontzeko, eta hala eginez gero, aipatutako zerrenda horretan sartuko lirateke.

*10. Atxikitako establezimenduaren betebeharrak, eta dirua trukatzeko prozedura.*

Atxikitako establezimenduek kanpainaren berri emateko materialak jaso, jarri eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dute. Establezimenduan jarriko dituzte ikusteko moduan.

Atxikitako establezimenduen arduradunek bonuak erosten dituztenen nortasunak kontrolatuko dituzte, eta bonu bakoitzean eroslearen izena eta NAN zenbakia idatziko dituzte (bonu bat baino gehiago erabiltzen bada aldi berean, nahikoa da batean idaztea).

Establezimenduak diruz lagundutako kopuruaren itzulketa jaso dezan, Udalak ezarritako prozedura jarraituko du: hama-bost eguneha behin egingo du eskaera, horretarako diseinatutako eredu erabiliz, eta Laurak Bat erakunde laguntzaileari entregatuko dio. Eskaerari atxikiko zaizkio jasotako jatorrizko bonuak eta bonuekin erositako produktu eta zerbitzuen tiketak edo fakturak; eta udalak horien balioa banku-transferentzia bidez ordainduko du, Laurak Bat elkarteak egin beharreko egiaztapen guztiak egin ondoren.

#### *11. Bonuak banatzea eta erostea.*

1. Laurak Bat elkarteak establezimendu parte-hartzaileen artean banatuko ditu bonuak, eta horiek salgai jarriko dira onartutako establezimenduen zerrenda argitaratu ondoren.

Establezimendu bakoitzari bonu-kopuru jakin bat esleituko zaio, haren dendan saltzeko. Bonuak erosten diren establezimendu berean egindako erosketetan erabiliko dira.

Ekimen hau ahalik eta establezimendu gehienara irits dadin, 5.000 bonu egingo dira, eta ekimenari atxikitako establezimendu guztien artean banatuko dira ehuneko berean. Ekimenari batu nahi duten establezimendu guztien eskaerak jaso ondoren, udalak Laurak Bat elkarteari jakinaraziko dio zein establezimenduk parte hartuko duten, eta zein den establezimendu bakoitzari eman dakioken gehieneko bonu-kopurua. Kanpai-

También se autorizará al Ayuntamiento de Pasaia a verificar de oficio y de forma directa aquellos requisitos para participar en esta iniciativa a los que tenga acceso.

- b) En el caso de ser persona física, DNI del solicitante.
- c) En el caso de ser persona jurídica, copia del CIF del solicitante.
- d) Presentar uno de los siguientes justificantes para acreditar el cierre de la actividad económica o merma de la actividad:

Justificante que acredite un ERTE por Covid-19 o justificación que acredite ser titular de la prestación extraordinaria por cese temporal de actividad para autónomos (CATA) o acreditación de que la facturación de abril de 2020 se ha reducido al menos en un 75 % en comparación con la media mensual de septiembre de 2019 a febrero de 2020.

e) Certificado de altas y bajas de Impuesto de Actividades Económicas.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 10 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de esta iniciativa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de Pasaia.

Una vez presentadas las solicitudes y tras haber comprobado que los establecimientos cumplen todos los requisitos, se publicará la relación de establecimientos admitidos en la página web del ayuntamiento y de la entidad colaboradora Laurak Bat. Aquellos establecimientos que presenten sus solicitudes en plazo pero no acrediten todos los requisitos indicados, tendrán 5 días hábiles para subsanarlos y si lo hicieran, se les incluiría también en la mencionada relación.

*10. Obligaciones del establecimiento vinculado y procedimiento canje.*

Los establecimientos adheridos se comprometen a recoger, ubicar y, en su caso, ampliar los materiales de información de la campaña, colocándolos de forma visible en el establecimiento.

Los responsables de los establecimientos adheridos controlarán la identidad de las personas adquirientes, anotando en cada bono (si se utiliza más de uno a la vez en uno solo bastaría) el nombre y DNI de la persona compradora.

Para que el establecimiento perciba el reembolso del importe bonificado seguirá el procedimiento establecido por el Ayuntamiento, mediante solicitud quincenal, utilizando el modelo diseñado al efecto que se entregará a la entidad colaboradora Laurak Bat. A la solicitud se añadirán los bonos originales recibidos y los tickets o facturas de los productos y servicios adquiridos con los bonos, cuyo valor será abonado por el Ayuntamiento mediante transferencia bancaria una vez realizadas las comprobaciones oportunas por las asociación Laurak Bat.

#### *11. Distribución y adquisición de bonos.*

1. Los bonos serán distribuidos entre los comercios participantes por la asociación Laurak Bat para que puedan comercializarse una vez publicada la relación de establecimientos admitidos.

Cada establecimiento participante tendrá asignado un número de bonos que podrá comercializar en su comercio. Dichos bonos deberán ser utilizados en compras realizadas en el mismo establecimiento donde se adquieran.

Para que esta iniciativa llegue al máximo número de establecimientos se emitirán un total de 5.000 bonos que se repartirán en el mismo porcentaje entre todos los establecimientos adheridos a la iniciativa. Así, una vez recogidas y aceptadas por el ayuntamiento todas las solicitudes presentadas por los establecimientos que deseen adherirse, comunicará a Laurak Bat, qué establecimientos participarán y cuál es el número máximo

naren barruan establezimendu bakoitzak gehienez ere 100 bonu jasoko ditu.

Bonuen banaketa-prozesu hori hainbat epetan egin daiteke, eta horretarako, bonu-kopuru jakin bat gordeko da, ondoren banatzeko. Gordetzen diren bonu horiek, lehenik, hutsuneak konpondu ondoren onartzen diren establezimenduetan banatuko dira, eta establezimendu horiei hasierako zerrendan sartutako establezimenduei adina bonu banatuko zaie.

Hasieran gordetako gainerako bonuak edo establezimenduei sobratutakoak kanpainan zehar banatuko dira, lehen banaketan jasotako bonuak agortzen dituzten establezimenduen artean, erakunde laguntzailearen bidez, eta horren berri emango da bai egoitza elektronikoa eta bai parte hartzen duten establezimendu guztiei zuzenean jakinaraziz; halaber, atxikitako establezimenduen artean bidezko banaketa bermatuko da. Inolaz ere ez da banatuko 100 bonu baino gehiago establezimendu bakoitzeko.

2. Pasaiaiko dendetan Kontsumo Bonoak 16 urtetik gorako pertsona fisikoek erosi ahal izango dituzte, eta erosteko garaian NAN aurkeztu beharko dute.

Onuradun bakoitzak atxikitako establezimenduetan gehienez ere 4 bonu erosi ahal izango ditu, bonuak bukatu arte. Udalak prozedura bat ezarriko du, onuradun bakoitzak gehienez ere ezarritako bonu-kopurua erosten duela kontrolatzeko, eta atxikitako establezimenduak egingo du egiaztapena.

Kontuan izanik dirulaguntzaren helburua dela Covidak eragindako txikizkako merkataritza sustatzea; eta bonuen onuradunak pertsona fisikoak direla eta gehienez ere 40 euroko hobaria jaso dezaketela onuradun bakoitzeko; laguntza jasotzen dutenek ez dute justifikatu beharko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. atalean aurreikusitakoa.

Bonuak erosten dituztenek 2020ko urriaren 31 bitarteko epea izango dute bonu horiek kanpainara atxikitako establezimenduetan erabiltzeko. Epe hori bukatzean, bonuak indarrrik gabe geratuko dira.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonuak ezin dira eskudiruarekin trukatu, eta horien zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Bonuak arduraz erosi eta erabiliko dira, eta galdutako ahazten badira, edo bestelako egoeraren bat gertatzen bada, ez da horien balioa itzuliko.

Oinarri hauetan arautzen den hobaria bateragarria da kontsumitzaileek beste edozein administrazioetatik helburu bereko jaso ditzaketen dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

#### 12. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Pasaiaiko Udalak egokitzen jotzen dituen egiaztapen, ikuskarpen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

Atxikitako establezimenduek ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Pasaiaiko Udalak Pasaiaiko kontsumo-bonuen programatik kanporatu ahal izango ditu, eta ez-betetzeetatik eratorritako neurriak ezarri.

de bonos que puede entregar a cada uno de ellos, estableciéndose el tope máximo en 100 bonos por establecimiento para toda la campaña.

Este proceso de distribución de bonos se podrá realizar en diferentes plazos, y para ello se reservará inicialmente un porcentaje de bonos para posteriores repartos. Esta reserva primero se utilizará, en su caso, para repartir bonos a aquellos establecimientos que se admitan después del plazo de subsanación, a los que se repartirá el mismo número de bonos que los entregados a los establecimientos incluidos en la primera relación.

A lo largo de la campaña, se repartirán el resto de bonos inicialmente reservados o los excedentes a los que puedan renunciar expresamente algunos establecimientos, entre los establecimientos que hayan agotado el número de bonos a ellos asignados en el primer reparto y mediante procedimiento que se articulará a través de la entidad colaboradora dando la oportuna publicidad de ello en la sede electrónica y directamente a todos los establecimientos participantes y garantizando siempre un reparto equitativo entre los comercios adheridos. En ningún caso podrán superarse los 100 bonos por establecimiento.

2. Podrán adquirir Bonos de Consumo en establecimientos de Pasaia las personas físicas mayores de 16 años, presentando en el momento de la compra de los bonos el DNI.

Cada persona beneficiaria de esta subvención podrá adquirir en los establecimientos adheridos, hasta que se agoten, un máximo de 4 bonos. El ayuntamiento, establecerá el procedimiento para controlar el número máximo de bonos subvencionados adquiridos por cada beneficiario y la entidad adherida realizará dicha verificación.

En atención a la naturaleza de la subvención, cuyo objetivo es principalmente el fomento del comercio minorista afectado por el Covid, así como atendiendo a la personalidad física de los adquirentes de los bonos y el importe máximo de bonificación que pueden percibir (40 euros por beneficiario) se exceptúa a los mismos del requisito de justificación de las circunstancias previstas en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Las personas que adquieran bonos podrán utilizarlos hasta el 31 de octubre de 2020 en los establecimientos adheridos a la campaña. Transcurrido dicho plazo, los bonos quedarán sin efecto.

Si el importe de la compra es inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico. Los bonos no pueden ser canjeados por dinero en metálico y su importe en ningún caso será de devuelto. La compra y utilización de los bonos deberá realizarse de forma responsable, teniendo en cuenta que ningún bono o importe del mismo será devuelto por otras circunstancias que puedan derivarse de su pérdida, olvido o desconocimiento.

Las bonificaciones objeto de las presentes bases serán compatibles con la percepción por las personas consumidoras de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualquier Administración siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada.

#### 12. Inspección e incumplimientos.

El Ayuntamiento de Pasaia se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.

En el supuesto de que hubiese algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Pasaia, podrá cancelar la adhesión de los mismos al programa bonos consumo de Pasaia y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento.

Atxikitako establezimenduak eta erakunde laguntzailea behartuta daude Pasaiaiko Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

*Azken xedapena.*

Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsua ezarri ahal izango dute interesdunek, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Pasaia, 2020ko ekainaren 10a.—Izaskun Gómez Cermeño,  
alkatea. (2706)

Los establecimientos adheridos y la entidad colaboradora se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el ayuntamiento en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

*Disposición final.*

Contra la presente convocatoria, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación o directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación.

Pasaia, a 10 de junio de 2020.—La alcaldesa, Izaskun Gómez Cermeño. (2706)